

Xakea, kirol berezia

Zabalik ditu ateak
Xake Elkartek ▶ 4



AHT-ren kontra bildu dira berriro Trianguloan

ELKARRETARATZEA ▶ Tolosaldeko
AHT Gelditu! Elkarlanakoek deia
egin dute datozen ekimenetarako

AZKEN BERRIAK ▶ «Jaurlaritzak
mehatxu egin du hilabete barru
lanekin hasiko dela», salatu dute ▶ 7



Elkarretaratzea egin zuten atzo Trianguloan AHT-ren aurka. J. ASTIBIA



JAIONE ASTIBIA - IÑIGO TERRADILLOS



Auzoetako jaiei helduz, eskualdean

TOLOSA-AMEZKETA ▶ Berazubiko eta Ugarteko jaiak ari dira ospatzen;
babarrun jatea eta mus txapelketa izan zen atzo, hurrenez hurren ▶ 6-7

TOLOSA ▶

**Uriarte
gotzaina
herrira
dator gaur**

Eukaristia emango
du Korpus Kristi-n ▶ 5

MAIXABEL HUARTE ▶ MOJA

«Medellin munduko
hiririk biolentoena da;
jende guztiak armak ditu»

80 urteko moja leizarra Kolonbian da
aspalditik behartsuei laguntzen ▶ 2-3



LANDARRI, S.L

Hilerrien ustiapena eta kudeaketa

Kanposantuko Lanak

- Ehorzketak
- Lurpetik ateratzea
- Gerakinen lekualdatzea
- Gerakinen errausketa
- Errausketa zerbitzua
- Hilerriaren proiektuak
- Hilerriaren eraldaketak

- Eraikuntza ezberdinak
- Hilobien apainketa
- Hilariak
- Panteoiak
- Hilobiak
- Estelak
- Fotozeramikak
- Estantziazko teknikak

Santa klara, 1 behe - TOLOSA
Tel./faxa: 943 67 01 14 • Zerbitzu iraunkorra: 610 552 552
Bidasaia, 9 behe - ORERETA- ERRETERIA
Tel.: 943 34 04 67 • Faxa: 943 51 31 41
www.landarri.com • landarris.l@terra.es

Uzturretik ▶
EKAIN GARMENDIA

IKEA-ren azken promozioa

Pelukeria izan nintzen lehengoan. Ilea mozten. Aukian eseri, bi errebastari bistazo disimulatua bota eta korrika alde egin: hori zen nire asmoa. Ilea mozten hasi bezain azkar, serio begiratu zidan pelukerak, ea zenbatero eta ze txanpurekin garbitzen nuen ilea —«egunero eta bainerako pote koloretzuenarekin»—. Humil entzun nion ahots-tonu serioan bota zidan erretolika: ez da ilea egunero garbitu behar, eta ezta edozein txanpurekin ere, horrek eta garbitzeko estiloak ilearen phan eragiten dutelako, eta ph itsusi bat desegokia delako edozein buru errespetagarritan. Hau da, ilearen ph-a egiten dugunaren ardatza bailliztan. Eta arazoa ez da pelukeroek beren jarduna serioegi hartzea, denok hala egitea baizik: mekanikoak mila teoria eta bat gehiago emango dizkizu autoaren olioaren garrantzia justifikatzeko, eta lagun lorezainak Margariren lore ederez soilik egingo dizu hitz hilerria sartzean. Gainera, ahots-tonu izugarri serioan denek ere.

Diskurtso horiei guztiei frakaso sentimendu bat daria. Garenarengatik garrantzitsu izan nahi genuke, eta ez dago guztion eskura *Gran Hermano* batean parte hartzea. Hamabost minutuz famatu izateko eskubidea izan behar omen genuke, baina ez dirudi inongo telebista katek hain programazio aspergarria eskainiko duenik (nahiz eta baten bat nahikoa gerturatu). IKEA gizarte honetan (polit eta eroso... baina denak igualak) bi gauza txikirekin zoriontsu izatera kondenatuta gaude eta, txikitasun hartaz gozatu ordez, puztu egiten ditugu berebiziko garrantzia balute bezala, geure buruak inportante sentitzea. Besteengandik apur bat desberdin sentitzea.

Eta graziosoena ipuluan geure buruari begiratzea izaten da. IKEAren denboraldi honetako azken produktua, ileko ph lustroso eta guzti, iganderako zutabe desberdin bat idatziz nahian.

KOMIKIA ▶ GORKA SALABERRIA



MAIXABEL HUARTE JUANMARTIÑENA ▶ MOJA

«Justiziarik ez dago; heriotza inpunea da»

Leitzako 80 urteko moja hau Medellin hirian (Kolonbia)
dago eta familiari bisitan etorria da

JAIONE ASTIBIA

Emakume honekin hizketan jarri eta berak bizitu dituen hainbeste bizipen eta gertaerak denak jartzeko ez dago lekurik hemen, ez eta gutxiagorik ere. Esan zizkigun gauzen zati tiki bat besterik ez da eskuartearen duzun hau.

Zenbat urterekin joan zinen moja?

18 urterekin.

Hasieratik joan al zinen Kolonbiara?

Ez. 7 urte nituen arte hemen bizi ginen eta hemengo mojetan aritzen ginen ikasten. Gero Bilbora joan ginen bizitzera eta gerra hasi eta frankistek Bilbo hartu zutenean Frantziara joan behar izan genuen, bi anaia kartzelan eta bestea *Batallon de trabajadores*-en utzita. Han 3 urte egin genituen eta berriz, gerra bukatu zenean, Leitzara itzuli ginen, Karmenenera.

Eta moja joan zinen...

Bai. 23 urte arte Bilboko kolegioan erakusten aritu nintzen. Gero, Madrilen izan nintzen beste bi urtez eta 1970ean Kolonbiara joan nintzen.

Nola hartu zenuen hara joateko erabakia?

Superiorak galdetu zidan joan nahi nuenentz eta beti misioetarako izpiritua izan dudanez, baiezkoa izan zen nere erantzuna. Amaren aldetik Azpikueta abizena badut, urrutikoa baina, Xabierko Frantziskoren ahaideak gara eta horregatik akaso...

Nora joan zinen zehazki?

Medellinera, Las Nieves auzora aurrena eta gero Loreto auzora, hau ere beste mendi batean eta bestea bezain behartsua. Orduz gero han nago.

Hemen ingurukorik ba al zenuen?

Bai. Leitzako bat beranduago joan zen hara. Eta bi sakramen-

tino euskaldun ere gurekin daude, Beasaingoa bata eta Lizarragakoak, bestea.

Zer lan egitera joan zinen hara?

Beraiek lizeoa esaten dioten eskola batera erakustera eta gero hango parrokiaren laguntza. Orain jada ni ez naiz erakusten aritzen adinagatik.

Azaldu hori pixka bat.

Esate baterako larunbatero 70 janari poltsa banatzen ditugu auzoan benetan gosea pasatzen ari direla dakigun familietan. Baina noski, hori lortu egin behar da! Eta aberatsengandik lortzen dugu, bihotz onekoak direnengandik. Besteek dena beraientzat gordetzen dute. Eta arroza, dilistak, ogia... (gogorra) lortzen ditugu. Hango hotel batetik salda egin eta ondorengo haragi egosia jasotzen dugu; erabilitako olio ere bai. Barazkiak eta frutak, berriz, hango diozesi batetik lortzen

ditugu, baina horiek zertxobait ordaindu behar izaten dira. Kamioneta bat alokatzen dugu, nahiko gutxi kobratzen diguna, merkantzia hori garraiatzeko. Jende horrek jasotzen duena baliozkoa dela ohar daitezen. 2.500 peso —euroak 3.000 peso balio ditu— ordaintzen ditu. Honekin, bi moja kidek duten 100na euroko soldatarekin eta Las Nievesetik igarotzen dituguten hirugarren soldatarekin —«hau da benetako komunismoa»—, estaltzen ditugu gastu guztiak.

Egoera, beraz, ez da oso samurra.

Begira, han ez dago lanbidezko langilerik, denak peoiak dira. Baina gehienak langabezia daude. Askok, emakumezkoa dago etxean, gizonak ume sail batekin bakarrik utzi duena, deus gabe eta noski, beste emakumeren batekin beste familia *desgraziatu* bat egitera joana... Jende asko eta denak behartsu!

Ustez ez dago gerrarik, baina, berriak ez dira halakoak?

Begira, gure auzoan azken bi urte hauetan *bakean* gaude. Baina benetako gerra bizitu izan dugu: bi sikario talde daude narkotrafikoaren eraginez sortutakoak, talde guztiak bezala, eta egunez, *balacera* izaten zen, justu umeak eskolatik

IRITZIA ▶ IÑAKI ARRATIBEL (KIROL MEDIKUA)

Behobia-Donostiaren aurrean, gomendio batzuk

Urtero bezala, Behobia-Donostia lasterketaren garaian aurkitzen gara, edo hobe esanda, momentu honetan proba hori prestatzeko garaian aurkitzen gara. Garai hauek borondate onekoak izaten dira askorentzat: uda pasatu ondoren forma fisikoa lantzeko desioa, hartutako kiloak galtzeko gogoa... Gainera, horretarako helburu bat izanik, lan hori guztia askoz errazagoa da. Baina hori oso ondo dagoela argi eta garbi nahiz eduki, batidanik esaten ari naiz ez duela denontzat horrela izan behar, askotan ez baikaude prest. Horregatik, artikulua hau idazterakoan, proba hori prestatzeko zer egin behar den idazterakoan, zer egin behar ez den ere argitu nahi nuke, gauzak gaizki eginez gero onuragarri baino kaltegarri izan daitekeelako.

Horregatik, lehenik eta behin norberak jakin behar du proba hori egiteko prest dagoen ala ez. Prest egoteak esan nahi du aldez aurretik entrenamendu bolumen gutxiengo bat eginda edukitzea. Zalantzak izanez gero, egokiena esfortzuko proba bat egitea izango litzake. Proba horretan osasun egoera aztertu eta forma fisikoa ebaluatu behar da. Horrelako proba batean aritzeko baiezkoa jasoz

gero, entrenamenduen erritmoa eta zein entrenamendu mota egin beharko litzatekeen esaten da.

Hau erabaki ondoren, eta niretzat erabaki garrantziena da, entrenamenduak hasi eta prestakuntza barruan dauden beste atalak kontuan eduki behar dira. Horretarako, datozen gomendioak:

- Kontuan hartuta iraupen luzeko proba bat dela, erdi maratona baita, gehien landu behar diren erritmoak iraupenekoak edo fondokoak dira. Honek esan nahi du, erritmoa baino, luzera landu behar dela.

- Korritzen ibiltzeko ohitura ez dutenentzat, edozein min edo molestia setitzen bada, lehenik gelditu eta azkar medikuari galdetu zer izan daitekeen.

- Edan nahiz eta egarririk ez sentitu.

PRESTAKUNTZA

«Prest egoteko entrenamendu bolumen gutxiengo bat egin behar da aurretik; norberak jakin behar du prest dagoen»

Berdin hotza egiten badu, edo izerdi gutxiokoa bagara. Gure zelulek, lanean ari direnean, beroa sortzen dute, eta bero hori izerdiaren bidez kanporatzen da. Edariak litro erdi izan behar du orduko. Bereziki ura, baina merkatuan dauden edozein produktutatik pittin bat uretan botata, hobe. Edaten ere entrenamenduetan hasi behar da. Ez utzi lasterketa egunerako.

- Hilabete geratzen da, eta bai jantziak bai zapatilak jadanik erabiliak. Ez estreñatu zapatilak, edo beste jantziak karrean egunean. Oso apainak egongo zarete, baina urratu askorekin amaituko duzue, ez bada lesio handiagoekin.

- Janaria beste arazo handi bat izaten da. Entrenamendu garaiko elikadurak eta lasterketa eguneko elikadurak ezberdinak izan behar dute. Entrenamenduen bitartean bi dira helburuak: pisua galtzea eta gastatutakoa berreskuratzea. Gainera, entrenamendu garaian egunak ezberdinak izaten dira; orduan, elikadurak ere hala izan behar du. Lehenik, entrenamendu luzeko egunetan goizean gosari on bat (zerealak, ogia, mermelada, fruta bat eta kafea), gero arratsean entrenatzen bada kontuan eduki zenbat ordu tar-

tean uzten diren, baina ez da karbohidrato asko behar. Entrenatu ondoren bai. Orduan berreskuratu behar dira gastatutakoak. Afarian, kasu horretan, pasta edo arroza jan behar da (entsalada, pasta edo arroza eta arraina edo tortila). Erregenerazio egunetan, edo entrenatzen ez den egunetan, ez litzake elikadura berezirik egin behar, jakia garbia eta gantz gutxiokoa bada, noski.

- Lasterketa egunean, garrantzia handikoa da bezperako afaria. Orduan bai: pasta edo arroza arrainarekin, azkeneko karbohidratoen karga bezala. Egun berean ez litzateke gosari berezirik egin behar. Aurrerago jarri dudak gosarira ohitu bazarete, hori bera hoberena. Gero, garrantzia handia du berriro bazkariak, gastatutakoa errekupeatu egin behar baita. Berriro pasta edo arroza jan, eta orduan posible da harragi pittin bat jatea. Ez dut txuleta esaten, baino bai haragi pittin bat, galdutako proteinak berreskuratzeke. Haragia entsaladarekin eta bukaeran fruta ale bat jatea nahikoa da.

Azken gomendioa: ezin bada jarraitu gelditu; astakeriarik egin gabe. Atletak onak ere erretiratzen dira, eta ez da ezer gertatzen.

PERTSONALKI ▶

▶ Leitzan jaioa ▶ 1924eko azaroaren 18an ▶ Franciscanas del Espiritu Santo kongregazioko Sor Begoña moja ▶ 1970az geroz Kolonbian dago

Zein etxetakoa zara? Zortzikonekoa eta Karmenenean bizitua. Jose Luis eta Maria Angelaren alaba. **Zenbat senide zintzen?** Zazpi. Lau anai eta hiru ahizpa: Joxe Mari, Gabriel, Rafael (albaiteroa izan zena) eta Jabier, eta Karmen, Maria Jesus (Pakorena), eta ni.

IZUA

«Izua da nagusi: senidea kalean hilik aurkitu eta ez dute salatzen. Han mehatxuak beti betetzen dira. Beti!»



ateratzen ziren garaian. Beraien helburua jendea ikaratzeko zen. Duela 2 urte ejerzitua sartu eta bi taldeetako 40 mutil espexeratu zituen. Orduetik nahiko lasai gaude. Baina hala ere, nonahi hilen bat agertzen da beti eta halakoa da familien beldurra eta izua, ez dutela inongo salaketarik eta erreklamaziorik egiten inoren aurrean. Justiziarik ez dago. Heriotza inpunea da.

Herritarrek nola nozitzen dute egoera?

Bahiketak-eta ohikoak dira; gerrillara eramaten dituzte. Edozein harrapatzen dute eta era-

man. Nekazari titkieri ere, zerekin bizia badutenei, joan eta salmentarekin lortuakoa kendu eta hutsik utzi. Atzetik beste gerrillakoak etortzen dira eta aurrekoari *lagundu* diola-eta lurra kendu... Mehaxatu... Han beti betezen dira! Beti! Azkenean, denak hirira doaz, miseria, beren lurak utziazazita. Horrela, Medellin, esate baterako, desplazatuz betetzen ari da, inolako baliabide eta bizibiderik gabeko pertsonen. Bi milioi lagun bizi dira bertan.

Zer gerrilla dira, bada?

Lau gerrilla talde daude, gero paramilitarrak ere bai. Eta de-

nak elkarren aurka aritzen dira gerran.

Kalean jendea tiroka aritzen da...

Medellin munduko hiririk biolentoena da. Jende guztia armatuta dago, behartsu izan arren. Edozein titkieria egatik, gidari bati beste batek gaizki begiratu diola iruditzen bazaio, gai da autotik jaitsi eta bertatik bertara tirokatzeko. Bizia ez du deus ere balio! Itxuraz lasaia da, jendearen emana ikaragarria da, jendea eta jendea. Baina inoiz ez da jakiten norekin gurutzatzen zaren, ez dakizu gerrilleroa den, gaizkilea, trafikatzaila...

Ez dago inor kaleak zaintzeko?

Poliziarri deitu eta edozein lekutan dituzte armak gordetzen dizkieten etxeak, eta, orduan, hauek azaltzen direnean, di-da batean armak gorde eta patxadan jartzen dira. Gainera, beti berandu iristen dira lekuetara, dena igarotakoan.

Berriz bazoaz...

Bai, bai. Ez dut hemen gelditu nahi, ezingo nuke; beste mundu bat da. Ez nintzatekeen ohituko. Izututa nago hemen da goenaz, hainbeste oparotasun, hango pobreziaarekin guztiz kontrajarria. Gehiegizkoa da.

Nola lagun daiteke?

Haurra jasoz, *apadrinatu*. Urteen 181 euro emanez, ume bati eskola, arropa eta janaria ordaintzen zaio.



JAIONE ASTIBIA

XAKEA ▶

Xakea, kirol berezi hori

Tolosaldeko Xake Elkarte urrian hasiko den txapelketari aurre egiteko gogotsu azaltzen da eta bere atea irekitzen ditu bertan jolastu nahi duenarentzat



Xakeak, oihartzun handiko kirola ez den arren, baditu bere jarraitzaileak; Tolosako Xake Elkarte biltzen dira xake jokalariek. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Xake jokoa gustuko dutenek ez dute kexatzeko aitzakiarik, izan ere, hainbat urtetatik hona badute non bildu. Tolosako Xake Elkarteak 1987. urtean ireki zituen bere atea lehen aldiz, baina elkarte lehendakaria den Ramon Etxeberriak azaltzen duenez, Tolosan bazegoen xakearen aldeko mugimendurik elkarte ezberdinen artean.

«Duela 40 urte baino gehiago daramate Tolosako elkarte ezberdinekin xakean; azkenik denak batu eta gaur ezagutzen den elkarte sortu zen 1987ko ekainaren 17an», esan dio Etxeberriak HITZARI.

Elkartearaino gerturatzeko den jende kopurua aldakorra dela ere azaldu du Etxeberriak; halaber, txapelketa sasoiaren horrek asko eragiten duela esan du. «Txapelketa ofizialak hasten direnean maiztasun handiagoz etortzen da jendea; lau lagun finkoak dira eta txapelketetan hamasei iza-

ten dira», esan du xake elkarte lehendakariak.

Urrian emango zaio hasiera taldekako txapelketari —larunbat arratsaldetan jokatu dena—; urtarrilean, berri, bakkarkakoari. Elkarteak bederratzi federatu ditu eta eskolarteko umeekin hogeit laguneko kopurua betetzea lortzen dute. Emaizta positiboak lortzen dituzte eta beti onenen artean egotea lortzen dute: «Txapelketa asko irabazi ditugu, baina ilusio gehien egin ziguna duela bi urte Miranda de Ebron (Espainia) irabazitakoa izan zen. 50. urteurrena ospatzen zen eta oso berezia izan zen guretzab» aitortzen du Etxeberriak.

Egoitza aldaketak

Elkarte xakeko zaldia biltzen ibili da urtetan Tolosatik, egoitza aldaketa asko pairatu baititu urteetan zehar. Ofizialki elkarte bezala bildu aurretik San Frantzisko ibiltokian kokatu ziren. Ondoren, jada elkarte sortua zegoenean, Plaza

Zaharrean egon ziren, baina hemendik Kondeko Aldapara pasatu ziren. Hemen zeudela obrak hasi ziren eta beraien elkargunea bota behar zuten, Udarekin hitz egin ondoren Plaza Berria pasatu zuten Tolosako Xake Elkartearen egoitza. Gaur egun hemen aurkitzen diren arren, eta bi urte eman ondoren, urrian Abastos eraikinerara pasatuko dira.

Elkarteak ez du ordutegi finkorik, ez eta entrenamendu ordutegi berezirik ere; bere instalazioak eskaintzen dizkio bertara gerturatu eta entretenu nahi duen guztiari, kontrol berezirik gabe. «Nahiko anarkikoak gara zentzu horretan; ez ditugu ordutegiak ezartzen», adierazi du Etxeberriak. Aste-gunetan elkartzen dira elkarteak eta umeentzat igande goizetan irekitzen dira elkarte atea. Txapelketetan parte hartzen duten haur horiek aurretik xakearen inguruko gutxieneko jakintza maila izan badute, eskolako ikastaroetan eskuratutakoa, besteak beste.

Egoera ezegonkorra

Xakearen egoera gure eskualdean ezegonkorra dela azaldu du Ramon Etxeberriak eta bolarada hobeagoak baina baita okerragoak ere izan direla aitortu du. «Zaila da futbolaren aurka borrokatzea, baina monitorea eta ikastaro gehiagorekin, umeak xakea ezagutzeko aukera izatea lor genezake»; behin biak ezagututa, «beraiek aukera dezatela», esan du Etxeberriak.

Tolosako Xake Elkarteak diru laguntza jasotzen du udalen —Ibarrakoa eta Tolosakoa; bi herrietakoak daudelako elkartearen—, Federazioaren eta herriko zenbait elkarteren alde-tik, eta, hori dela eta, Ramon Etxeberria lehendakaria baikor azaltzen da, jokatu nahi duen jendearentzat oinarritzko baldintzak betetzen diren bitartean egoera txarra izango ez dela baieztatuz.

Xakean aritu nahi duenak zabalik ditu elkartearen atak. Horixe esan du Etxeberriak.

RAMON ETXEBERRIA ▶
XAKE JOKALARIA

«Jende mota asko dago xakean»



NOELIA LATABURU

Tolosan jaioa, 1973. urteko irailaren 28an. Informatikaria ogibidez, Tolosako Xake Taldeko lehendakaria da bera. Bere lana udaletxeekin, Federazioarekin eta bestelako instituzioekin harreman-teea da, besteak beste, diru laguntzak lortzeko eta txapelketak antolatzeko.

Jokalari orok du bere gustuko den norbait. Zein da zurea?

Ez naiz jokalaririk zehatz baten jarraitzaile sutsua, baina Kasparov eta Krownik ditut gustukoak.

Xakeaz gain, zeintzuk dira zure zaetasunak?

Zaletasun gehiago ere badit xakeaz gain. Igeriketa egiten dut eta kirolzale definituko nuke nere burua; batik bat 1 Formula, saskibaloia eta futbola ikustea gustatzen zait.

Ziur zure etxeko apalak sariz beteak dituzula...

Hamaika sari eskuratu dut, taldeka zein bakarka; liga ofizialean zein liga ofiziale-kanpo; azkena, uda honetan Castelldefells (Katalunia) ospatutako txapelketan nire saileko hoberenaren saria lortu dut.

Xake jokalarik ona izateko errezeta?

Denetarik aurki daiteke kirol honetan, ez bakarrik jakintsuak. Jende mota asko dago xakean. Sekretua kontzentrazioa eta dedikazioa da.

HITZA, eskualdeko plaza
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

661 678 818
Toki aproposa iragartzeko

GUTUN@K ▶



Herriaren hitza errespetatu (1)

Ikasturte berri baten atarian gaude. Behin eta berriz esan eta entzuten ari gara berebiziko garrantzia izango duen aldia izango dela. Tolosa Bizirik herri ekimeneko zinegotziok igaro berri den aldiaren inguruko hausnarketa egin eta datozen hilabetetako erronken inguruko gogoeta publikoa aditzera eman nahi izan dugu, gure jardueraren politikoaren oinarria izango dena tolosar guztien aurrean ipini, eta, iritziak iritzi, beste batzuek sortu eta sortuko duten gezur eta trikimailuen amaraunean inor gal ez dadin.

Lizartza: konponbiderako atak ixten
Guztiok izan dugu Lizartzan gertatuaren albistea, baina zenbait gogoeta merezi duela uste dugu.

Lizartzan negoziatu eta erabaki zen eredu, gure eredu da. Hau da, zinegotzi ez legiti-

moek, lapurrek, eskuraturiko karguak utzi eta haien ordez herriaren ordezkari zilegiak, lege arrotz eta faszista batek legez kanpo utzitako zinegotziak, ezartzea. Hauxe da udaberriaren herriz herri apartheid politikoa gainditzeko egin genuen proposamen formala, proposamen erabat legala, LO-REGaren 182.2 artikuluan oinarritzen dena. Hauxe da Lizartzako Axurdario herri ekimenak eta Joseba Egibar gezurrezko alkateak adostu zuten konponbidea. Herriaren hitza errespetatzeko asmoa zintzoki erakutsiz, malgutasunez jarduteko eta erantzukizunari aurre egiteko konpromisoa hartu zuen, azaleko desadostasunak gainditzearren. Ondorioz, akordioa gauzatu eta publiko egin zen. Baina EAJ-k, Josu Jon Imaz buru zuela, akordioa atzera bota zuen, Gipuzku Buru Batzarreko lehendakaria barrengarri utzi eta berriro ere usurpatzaileen ekimenari tinko eusteko asmoa indartu zuen.

Tolosa: ezetza eta harrokeria

Hauteskundeetatik urte eta erdi igaro da, hau da, ia legeingintzaldi erdia, eta argi eta garbi utzi behar dugu igarotako denbora honetan guztian Tolosa Bizirik herri ekimeneko ordezkariok ez dugula proposamen formalik jaso ez udal gobernuaren aldetik ez eta berau osatzen duten alderdi politikoaren aldetik. Tolosan apartheid politikoa errotik gainditzeko egon den proposamen bakarra Tolosa Bizirik taldeak aurkeztu zuen joan den maiatzean udaleko osoko bilkuran, eta lehen Lizartzako kasuan aipatu dugun eredu berbera zen. Ezezko borobila jaso genuen, PP eta PSOEren aldetik bezalaxe EAJ, EA eta EBren aldetik.

Ekanean, arazoaren sustatietara jotzeko borondatea ahaztu gabe, apartheid politikoen ondorio praktikoa, guxtienez, gainditzeko joateko, gure lan politikoa aurrera eramanez, ahal izateko lokala eskatu genuen. 2.500 tolosarren ordezkari demokratikoei dagoenien baliabideetako bat besterik ez genuen eskatu, gure or-

dezkaritzaren laurdena ere ez duten talde politikoek baduten baliabidea. Oraingoan ere ezezko borobila jaso genuen. Talde ilegal bati lokala ematea kartzela zigorra duen delitua dela argudiatuz. Ez gaude ados argudioarekin, izan ere, Tolosa Bizirik herri ekimena une honetan ez baita talde ilegala, izatekotan alegala baizik; hau da, legalki ez da existitzen. Beste hainbat taldek normaltasunez erabiltzen dituzte gaur egun Udalak utzitako lokalak. Adibideak, hamaika. Are gehiago, noren izenean erabili dira orain arte udaletxeko areto nagusia edo beste batzuk guk antolatu ditugun hitzaldi eta ekitaldi publikoetarako adibidez, Tolosa Bizirik-en izenean ez bada? Hori ez al da delitua? Lokalari eman nahi genion erabilera izango ote da ezezkoaren arrazoi?

Herriak oposizioko talde nagusiaren lana egiteko erantzukizuna eman zigun eta horretarako prest gaude, baina ezinbestekoak ditugu gure boto-emaleei dagozkien baliabide-

ak: lokala, ordenagailua, mahai bat, bost aulki... Baina egungo udal arduradunak oso ondo bizi dira oposiziok gabe, 25 urtetan zein izan da herri honetan benetako oposizio lana egin duena? Horregatik ukatu ote digute gurea dena?

Gainera, ez edonola ukatu ere. Urte eta erdi errespetuz eta formak zainduz eskatu diegu kendu eta ukatu zigutena. Baina horren ordez, inolako lotsarik gabe eta beste baten garaiko harrokeriaz, erantzuna publiko egitea erabaki dute. Errespetua eta forma kontuak ahultasunarekin nahasteko ohitura txarra dute, indartsuari men eta ahulari min egitera ohituta dagoenaren ezaugarri. Guk errespetua ez dugu inoiz galduko, baina horrelako harrokeria eta isekak ez ditugu minutu bakar batez ere jasan.

ANTON IZAGIRRE, BEGOÑA ALDALUR, HEKTOR ESPIN, IBAN ORTIZ ETA AITOR IZTUETA ▶ TOLOSA BIZIRIK HERRI EKIMENKO ZINEGOTZIAK

*Jarraituko du

ERLIJOIA ▶

Herrian izango da gaur Uriarte gotzaina

Kargua emango dio Korpus Kristiko erretore berriari 12:00etako eukaristian

IRATXE ETXEBESTE

Juan Maria Uriarte, Donostiako Gotzaina Tolosako Korpus Kristi parrokian izango da gaur. «Hain zuzen ere, lehendabizikoz izango da gure parrokian», esan du bertako parroko Juan Otaegik. Parrokiko erretore berriari eta haren laguntzaileari kargu ematera etorriko da gotzaina, eta, bide batez, agurra egingo dio aurreko erretoreari, Aita Jose Antonio Labakari, alegia.

Horren harira, Juan Otaegi parrokoak eta haren koadjuto-

re Francisco Artolak gonbita egin nahi diete herriko eliztar guztiei, Juan Maria Uriarte Donostiako Gotzainak Korpus Kristi parrokian —Kondeko Aldapa, 22— zuzenduko duen eukaristiara biltzeko. Eguerdian, 12:00etan hasiko da elizkizuna, eta Korpus Kristiko parrokoak dioenaren arabera, «berezia» izango da, alde batek Donostiako Gotzaina «gurekin izango delako», eta, bestetik, lehengo erretoreari agurra egiteaz gain, «berriari ongi-etorria emateko aukera izango dugulako elizkizunarekin».



Juan Maria Uriarte. I. ETXEBESTE

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorian agurrak...

www.tolosaldekohitza.info

Tolosako Mendi Bizikleta Ibilaldia

Antolatzailea: Egun Urriak 12 Ordua 10:00

Lekua: Berzubi Anzon

Kaskaren Erabilera Derriroerakoa izango da.

Kirol Materiala Zerkatutako da.

Mangera Eta Duta Zerbitzuak Egozko Diru

Ibilbideak 22Km Edukiho Ditu.

Aurrezki Gorakorra EUSKADIED KUTXA

IRUGARREN UTITAN %3,50

IRUGARREN UTITAN %2,25

IRUGARREN UTITAN %2,00

UTB %2,59

Zure interesak hazi egingo dira, gora eta gora

BERAZUBIKO JAIK ▶

Babarrunak janez hasi eta enbidoka, festa hasi egin da

Festetako bigarren egun eguzkitsu bezain jendetsuan,
haurrentzat nahiz helduentzat aukerako ekitaldiak daude



Babarrunak lodi-lodi egosita zeuden eta apetitua ere ez zen falta. J. A.

JAIONE ASTIBIA

Atzokoa bigarren festa eguna zuten Berazubi auzoan eta aurretik zorte oneko dira, eguraldia ere ederra izaten ari baita. Baina ez da eguzkia bakarrik festa giroa epeltzen duena, bertako biztanleak ere gogotsu baita biltza kalejiran eta parrandan.

Gauzak horrela, atzokoa egun beteko festa eguna izan zuten auzoan, goizetik hasi eta gauerainoko egitarau peto-petoarekin. Egunari hasiera emateko, kirolari ekin zioten eta auzoko plazan, 3 x 3 motako areto futbol txapelketa jokatu zuten gaztetxoek. Ate txiki bana bi muturretan jarri eta zeinek gol gehiago sartu ibili ziren, izerdi patsetan, hara eta hona, baloiaren atzetik korrika.

Kirola neska-mutiko gazteek egin bazuten ere, helduxeagoak ziren eguerdian mahaira bildu zirenak, nonbait hauek ere gosetu egin ziren eta. Alegia, plazan bertan, babarrun jatea izan zuten. Berazubiko elkarrekin prestatuta. Han bertan HITZARI adierazi ziotenez, urtero egiten dute otordu hori auzoan. Kasu honetan, 6 kilo babarrun prestatu zituzten, han bildu ziren berrogeita hamar bat lagun auzoan. Baina plater hori ongi lagundua izan zuten eskura, bertan egiaztatuta izan zenez, aza eta gainerako «sakarmentu» guztiak ere, hantxe baitzituzten platerak bertan, zela odolki, zela txerri-sahieski... Edonola ere itxura ez ezik, usaina ere ederra zeukaten

EGITARAU ▶

GAUR

09:00. Txistulari bandaren aldetik, goiz eresia.
12:00. Eskualdeko toka lehiaketa.
13:00. Paella lehiaketa.
14:30. Bazkaria.
17:00. Behi kozkorak eta poney-ak txikientzat.
19:00. Patata tortilla lehiaketa auzoko plazan.
23:00. Dance eta hip hop erakusketa. Ondoren, DJ Bull.

BIHAR

11:30. Marrazki lehiaketa txikientzat.
12:30. Toka txapelketa umeentzat.
16:30. Niruka, Mixka eta Kuki pailazoak.
18:00. Merienda banaketa auzoko haurreentzat.
19:00. Buruhandiak.
19:30. VI. Postre Lehiaketa.
20:30. Afaria.
22:30. Danborrada nagusia Nekaezinak taldearekin.
00:00. Disko festa gogoeikin.

haietxek, bazkalordua izaki eta denak ere gose antzean ibilki.

Bazkari on batek jarraipena ere halakoa izan behar eta, auzoko 66 eta Ordizia tabernetan mus txapelketa azkarra jokatu zuten. 32 bikotek eman zuten izena eta 16:30ak ingurutik aurrera hantxe aritu ziren zeinek enbidorik handienak jo eta zeinek ordagoz erantzun. Edozein moduz, borrokatzeko moduko sariak ere bazeuden jokoan: irabazleek txapelaz eta garai-kurraz gain, bildutako dirutik —bikoteko 20na euro jarri zituzten parte hartzeagatik—, zati dezentekoa eskuratuko baitzuten.

Nahi zuenak zezenen aurrean korrika ibiltzeko aukera ere bazuen arratsaldean zezen-plazan; baina, hezurrak hautsi gabe ibili behar, nonbait, hurrengo egunetako festak ez galtzeko.

AZOKA ▶

Aparteko perretxiko eskaintza atzoko azokan

Prezioek behera egin dute perretxikoetan, eta frutan errezil sagarra nagusitu da

PABLO ALBERDI

Atzoko eguraldi onak aparteko giroa sortzen lagundu zuen. Azokan ikusi genuen erosle kopurua oso handia izan zen, eta eskaintza ere, apartekoa. Perretxikoen zerrenda ikusgarria izan da aste honetan ere. 250 kilo onddo eta 200 kilo gibelurdin izan ziren, eta prezioek behera egin zuten, gainera. Fruta eskaintza ona izan da, eta perlestina sagarrek errezil sagarrei utzi diete lekua.

AZOKA ▶

Zerkausia	merk.	gares.
Bertako produktuak		
Oilaskoa (3. ast.)	1,50	-
Oilaskoa (4. ast.)	1,60	-
Arkumea	3,00	3,20
Ahatea	2,50	-
Intxaurra	3,00	4,50
Arrautzak	1,30	2,10
Irasagarra	3,00	6,00
Artoogia	3,50	-

Produktu ekologikoak		
Udarea	1,92	2,72
Sagarra	2,13	3,00
Azenarioa	2,14	2,53
Arroza	1,90	2,00
Aza	2,53	4,05
Baratzuria	1,62	7,60
Kogoiola	0,85	-

Berdura plaza		
Lilia	1,20	-
Krabelina (dozena)	4,80	-
Ziklamena	3,50	4,50
Porrua	2,40	-
Kamomila	1,50	-

FORMAKUNTZA IKASTAROA (Langileentzat) 2004/05

KUALIFIKAZIO PROFESIONALEN SISTEMA - KATALOGO MODULARRA

IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOA)	ORDUA	HASIERA	ORDUTEGIA
- Kalkulu-orrria (Excel)	30	04-10-25	18-21
- Elektrodo estali bidezko angeluko soldadura	80	04-10-25	18-21
- Sare lokal baten administratzea (Windows 2000 Server)	70	04-10-25	18-21
- Fresadora konbentzionaleko mekanizazioa	80	04-10-25	18-21
- CAD 2D (AUTOCAD 2004) (Hastapena)	40	04-10-25	18-21
- Finantza kudeaketa	30	04-11-03	18-21
- Adierazpen-sistema arautuak (Marrazketa teknika)	40	04-11-03	18-21
- Automatismo elektroteknika	40	04-11-03	18-21
- Oinarriko automata programagarriak (PLC SIEMENS)	35	04-11-22	18-21
- Soldadura elektrikoa	40	04-11-22	18-21
- Torno konbentzionaleko mekanizazioa	80	04-11-22	18-21
- Oinarriko elektrizitatea	30	04-11-29	18-21
- Giza baliabideen kudeaketa	75	04-11-29	18-21
- Ordenagailu pertsonala (Windows)	30	04-11-29	18-21
- Zerbitzu telematikoen aplikazioak (Korreo - Internet)	20	04-12-13	18-21

Matrikula eta informazioa: Tel: 943 65 11 47 • Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA
E-mail: idazkaritza@tolosaldea.com • Web: www.tolosaldea.com

iragarki laburrak ▶

Administrazio laguntzaileak.

Lanpostu libreak bete behar dira: Hernani, Usurbil, Beasain, Errenteria. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakian.

Gidariak. Hamar lanpostu bete behar dira: Arrasate, Zizurkil, Deba, Villabona, Oreteta, Antzuola, Legazpi. Informa zaitzek eskaintza ezberdinen inguruan. Informazioa doan. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 65 01 93.

Ostalaritza. Sukaldariak,

zerbitzariak, sukalde laguntzaileak. Lanpostu finkoak Eusko Jaurlaritzan, udaletan, Foru Aldundian eta ikastetxeetan. Informazioa doan 943 65 01 93 telefono zenbakira deituta.

Ertzaintza. 200 lanpostu bete behar dira. Baldintzak: Eskola agiria. Izen-emate epea zabalik. Informazioa doan. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 65 01 93. **Vital Kutxa.** 70 lanpostu libre geratzen dira datozen inkorporazioetarako. Informazioa

doan. Deitu 943 65 01 93 telefono zenbakira.

Mantenimendua. Arotzak, igeltseroak, elektrizistak, pintoreak eta peioak. Lanpostu finkoak udaletan. Informazioa doan. Deitu 943 65 01 93 telefono zenbakira. **Udaltzaingoa.** 19 lanpostu bete behar dira: Hondarribian, Irunen, Arrasaten, Beasainen, Ordizian, Oñatin, Mutrikan eta Eibarren. Informa zaitzek dohainik. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 65 01 93.

UGARTE ▶ JAIK

Trikitixa eta herri kirolak, gaurkoan

Giro ederrean igaro zuten atzoko eguna Ugarteko herritarrek jaietan

IÑIGO TERRADILLOS

Ostiralean eman zieten hasiera aurtengo Errosarioko amaren jaiak Ugarten, eta gaur bukatuko dira. Atzokoan, eguraldi ona lagun zela, askotariko ekitaldiak izan ziren herritarren gozamenerako. Herritarren artean VI. Mus Txapelketa jokatu zuten arratsaldean, eta ondoren, haurrentzat, bereziki, pailazoen emanaldia izan zen ikusgai. Poxpolo, Mokolo eta konpainia pailazo tolosarrak izan ziren haurrei ahotik irribar

rra ateratzeko ardura izan zutenak.

Gau aldera, berriz, zahagi ardoa dastatzeko aukera izan zuten Ugarten eta giroa alaitzeko trikiti doinuak eskaini zituzten Epelde eta Larrañagak. Trikitilarien atsedenean, Traketsen apustuak izan ziren.

Gaurkoan ere adin guztietarako egitaraua prestatu dute. 11:30ean meza nagusia izango da. Mezaren ondoren pilota partidaz gozatzeko aukera izango da herriko frontoian gazte txoen eskutik, eta hauek

amaitzean, *Inguruxoa* dantzatuko dute ugartearrek. Bazkaldu aurretik trikiti doinuak izango dira entzungai Laja eta Landakanda trikitilarietara.

Arratsalde eta gau partean izango dute oraindik ere zer eskainia aurtengo herriko jaiak. 18:00etan herri kirolak izango dira eta hauek amaitzean *Inguruxoa* dantzatuko dute berriro herritarrek.

20:00etan sagardo dastaketa egingo dute eta jaiak behar bezain alai amaitzeko, gau aldera, sagardo dastaketarekin



VI. Mus Txapelketa. I. TERRADILLOS

amaitu eta gero, trikitixa izango da entzungai. Kasu honetan, bazkariaren aurretik giroa ederki alaituko duten trikitilariak izango dira berriro ere: Laja eta Landakanda. Trikiti doinuekin hurrengo urterarte agurtuko dituzte jaiak.

TOLOSA ▶ AHT

AHT-ren aurka bilkura egin dute berriro

Azaroaren 6an Donostian egingen den manifestaziorako deialdia egin dute



Azaroaren 6an egingen den manifestaldirako deialdia egin zuten. J.A.

JAIONE ASTIBIA

Atzo eguerdian egin zuen elkarretaratzea Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlana taldeak Trianguloan eta han bildu zirenek esku-orriak banatu zituzten inguruan zebilen jendearen artean, hain zuzen ere, hu

rren azaroaren 6an, Donostiako Boulebarretik abiatuta egingen den manifestaziorako deialdia eginez.

Ekitaldia Anoetako txalapartarien eskutik hasi eta amaitu zen. Baina ez zuten eginkizun bakar hori burutu atzokoan han bildutakoek. Aurretik es

kualdeko batzarra izan zuten Kultur Etxean eta AHT-ren inguruko azken berriak ezagutu zituzten, alegia, «Jaurilaritzak lanekin hilabete barru hasteko mehatxua egin duela jakin izan dugu», zioten bildutakoek eta horren inguruan eragin zuzena jasaten ari diren eta jasango

luketen lekukotasuna izan zuten. Bestalde, manifestazio aurreko eginbeharrez ere aritu ziren, inguruko herrietarako egitarau oparoa antolatuz, besteak beste: AHT-ren aurkako astea, hitzaldiak... deialdi horietara joateko gonbidapena egin zuten.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzio klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Morant, R. Zabalarreta, 1

(Tolosa). 943 67 38 39.

Erbiti, O. Lizarraga, 7 (Leitza). 112.

Bihar. Santa Maria, I. Nafarroa

etorbidea, 2 (Tolosa). Telefonoa:

943 65 46 10.

Jimeno, A. Elbarren, 52 (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona_aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaledea. 687 41 00 22

anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitza. 687 41 01 18.

leitza@tolosaldeko-hitza.info

Promozioa eta eraikuntzak

Bizkai kalea, 2 - behea
20400 TOLOSA
Faxa: 943 69 71 98
Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01

BERRIAk komertzialak behar ditu Tolosaldean (erref.: 0518)

Eskaizten da:	Eskaizten da:	Kontuan hartuko da:
• Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea. • Laneko kontratua, gizarte segurantzarekin. • Soldata finko interesgarria eta komisiak.	• Euskaraz jakitea ezinbestekoa da. • Izaera dinamikoak izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea. • Autoa izatea.	• Eskarmentua izatea antzeko lanetan. • Eskualdekoak izatea. • Eskualdeko ondo ezagutzea.

Interesa izanez gero, curriculum zehatza bidali urriaren 18rako gb@berria.info
HELBIDE ELEKTRONIKORA edo beste helbide honetara:
BERRIA Giza Baliabideak Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain.
Ez ahaztu erreferentzia zehatza.

Herri Irratia

RADIO POPULAR

TOLOSALDEA

1224 AM | 87.9 FM

99.8 FM | 94.8 FM

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Mendiko botak. Mendiko botak

salgai: Sportiva 212, Glaciari.

Taila: 39 t'erdia. Interesa duenak

dei dezala telefono zenbaki

honetara: 652 72 64 90.

AGENDA ▶

ERAKUSKETAK

Tolosa. David Barandiaran billabonatarren koadroak Sorron koadro denda.
Tolosa. Ana Gonzalezen lore lehorren erakusketa, Saikin tabernan.

JAIK

Ugarte (Amezketak). Azken eguna gaur: 11:30ean, meza nagusia; ondoren gazteboen pilota partida; jarraian, hamaiketakoa eta segidan *Inguruxoa* dantzatuko da; 18:00etan herri-kirolak; ondoren, *Inguruxoa*; 20:00etan, sagardo dastaketa eta amaitzeko, Laja eta Landakanda trikitilariak.
Berazubi (Tolosa). Goiz eresia 9:00etan Tolosako Txistulari Bandaren aldetik; 12:00etan eskualdeko toka lehiaketa plazan; 13:00etan paella lehiaketa; 14:30ean bazkaria paella lehiaketaren partaideentzat eta sarien banaketa; 17:00etan behi kozkorak askatuko dituzte zezen-plazan, eta ondoren poney-ak txikitxoentzat; 19:00etan patata tortila lehiaketa plazan; 23:00etan *Break Dance* erakusketa plazan DJ-ekin; ondoren Hip Hop taldea eta amaitzeko, DJ Bull. Bihar, 11:30ean marrazki lehiaketa plazan txikitentzat; 12:30ean toka txapelketa haurrentzat; 16:30ean gazteentzako haur jaialdia opari, gozoki eta Niruka, Mixka eta Kuki pailazoekin; 18:00etan merienda banatuko diete auzoko haurrei; 18:15ean globoflexia erakusketa; 18:30ean Kuki, Niruka eta Mixka pailazoen saioa; 19:00etan buruhandiak; 19:30ean VI. Postre Lehiaketa; 20:30ean afaria danborradako kideentzat; 22:30ean danborrada nagusia erregina eta damen parte-hartzearekin eta Nekazkinak txarangarekin eta 00:00etan disko festa gogo-ekin.

ZINEMA

Tolosa. *Spy kids 3D.* Gaur, 17:00etan Leidor zinema aretoan. *Olvidate de mi.* Gaur, 19:30ean eta 22:30ean eta bihar 19:30ean eta 22:30ean, Leidorren.

Tolosako txokoak ezagutuz

TOLOSA ▶ Kataluniako L'Espinguet abesbatzakoak Tolosan eta Larraulen izan ziren atzo; gaur Donostia ezagutu eta kontzertua eskainiko dute Leidorren



Kataluniako L'Espinguet abesbatzako partaideek Tolosa bisitatu zuten atzo. IÑIGO TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Tolosa ezagutzeko parada izan zuten atzokoan Kataluniatik etorritako L'Espinguet abesbatzako partaideek. Ostiralean iritsi ziren Vilafranca del Penedes herriko lagunak asteburua Tolosan pasatzeko asmotan, Laskorain abesbatzakoekin elkartrukea antolatu baitute.

Horrela, herriko leku esanguratsuenak ezagutu ahal izan zituzten kataluniarrek. Azokan izan ziren, eraikin garrantzitsuenak ikusi zituzten, Gorrotxategi gozogintza museoa bisitatu zuten eta Agirrerren musika-tresna tailerrera joateko aukera ere izan zuten.

Ondoren, Udalaren harrera zetorren. Olatz Peon alkateordea zuten zain udaletxean ongi-etorria emateko eta Tolosako oroigarriak eta gozokiak ere eskaini zitzaizkien. Hau guztia eskertuz, L'Espinguet abesbatzako gazteek kantu eder bat abestu zuten udaletxean bertan. Oso ongi pasatzen ari zirela zioten Kataluniatik etorritako gazteek. Laskorain abesbatzako kideak lagunak zituzten, eta hauei bisitan etortzea «pozgarria» izan zela aipatzen zuten denek.

Goiza Tolosan igaro ostean, eta behin bazkaritara joanda, eskualdeko Larraul herria ezagutu zuten arratsalde partean; bertako museoa bisitatu eta Olazarreko ibilaldi laburtua egin zuten. Eguna ondo bukatzeko, herriz, Leidorren kontzertua zuten zain Tolosako Orfeoaren eskutik.

Gaurko eguna Donostia ezagutzeko aprobetxatuko dute kataluniarrek tolosarrekin batera. Kursaal-a, San Telmo, Alde Zaharra eta kaiatik barrena oinezko ibilalditxo egingo dute Alderdi-Ederrerraino eta eguerdian Donostiako txu-txu trenera igoko dira. Haizeen orrazira eta Igeldora bisita ere ez da faltako. Arratsaldean izango dute hitzordu garrantzitsua, bi abesbatzek kontzertua eskainiko baitute Jesuitinetan 20:00etan. Asteburu polita igaro eta gero, astelehenean esan beharko dio agur Kataluniako abesbatzak Laskoraingoari.

AGURRAK ▶



ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Maidar Uzkudun
(Villabona). Gaur 2 urte.
Amabok eta aitabok.



ZORIONAK
Joanes Zubeldia Luarizaierdi
(Iruña). Iritsi da zure lehenengo urtebetzea! Muxu handi bat familiaren partetik.

HITZA,
zorion agurren
tartea
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 beheko
TOLOSA
Udaletzeko bulegoa
LEITZA
Mesedez, argazkia bi
egun lehenago ekarri.
Mila esker!